



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea



**HERRI MAILAKO TXOSTENA,**

**2019**

**ZORNOTZA**



## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Ohar metodologikoak.....	5
3. Datu orokorrak.....	7
3.1. Parte-hartzaileak.....	7
3.1.1. Zereginen arabera: ahobizi eta belarriprestak.....	7
3.1.2. Generoaren eta adinaren arabera.....	7
3.1.3. Gaitasunaren arabera.....	8
3.1.4. Motibazioaren bilakaera.....	9
3.1.5. Hizkuntza jokaeraren bilakaera.....	10
a. Ulertzen dutenekin euskaraz.....	10
b. Inguruko hizkuntza erabilera.....	11
c. Norberaren hizkuntza erabilera.....	12
d. Erabilera ezagunekin.....	13
e. Erabilera ezezagunekin.....	17
f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera.....	18
g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera.....	19
3.2. Ahobiziak.....	23
3.2.1. Generoaren eta adinaren arabera.....	23
3.2.2. Gaitasunaren arabera.....	24
3.2.3. Motibazioaren bilakaera.....	25
3.2.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera.....	26
a. Ulertzen dutenekin euskaraz.....	26
b. Inguruko hizkuntza erabilera.....	27
c. Norberaren hizkuntza erabilera.....	28
d. Erabilera ezagunekin.....	29
e. Erabilera ezezagunekin.....	33
f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera.....	34
g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera.....	35
h. Erabilera ekimenaren betekizun mailaren arabera.....	39
3.3. Belarriprestak.....	41
3.3.1. Generoaren eta adinaren arabera.....	41
3.3.2. Gaitasunaren arabera.....	42



3.3.3. Motibazioaren bilakaera.....	43
3.3.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera.....	44
<i>a. Ulertzen dutenekin euskaraz.....</i>	<i>44</i>
<i>b. Inguruko hizkuntza erabilera.....</i>	<i>45</i>
<i>c. Norberaren hizkuntza erabilera.....</i>	<i>46</i>
<i>d. Erabilera ezagunekin.....</i>	<i>47</i>
<i>e. Erabilera ezezagunekin.....</i>	<i>51</i>
<i>f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera.....</i>	<i>52</i>
<i>g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera.....</i>	<i>53</i>
<i>h. Erabilera ekimenaren betekizun mailaren arabera.....</i>	<i>57</i>
3.4. Ahobizi eta belarripresten arteko harremanak.....	59
3.4.1. Ahobizien hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena).....	59
3.4.2. Ahobizien hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena).....	59
3.4.3. Belarripresten hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena).....	60
3.4.4. Belarripresten hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena).....	60
3.5. Herriko eta herri horren gune soziolinguistikoko datuen alderaketa.....	61
4. Datu nagusien irakurketa (laburrean).....	63



## 1. Sarrera

2018ko udazkenean ospatu zen lehen aldiz *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimena. Herritarren hizkuntza ohiturak euskararen alde aldatzea zuen helburu, eta *ahobizi* eta *belarriprest* rolen laguntzaz, euskararen erabilera sustatzeko baldintza sozial egokiak sortu nahi izan zituen. Ekimenean 400 herritik gora aritu ziren eta 225.000 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten, guztien artean Euskal Herrian inoiz egin den ariketa soziolinguistiko koordinatu handienetako bat martxan jarritz.

11 egunez ikusi ziren txapak kaleetan eta euskara jendearen aho-belarrietan; baina aski izango ote zen hura euskararen erabilera sustatzeko eta eskuratutako ohitura berriak epe luzean iraun arazteko? Euskaraldiaren eraginkortasuna neurtu eta aztertzeko asmoz ekimenarekin batera abian jarri zen *I. Euskaraldia ikerketa proiektua*. Eusko Jaurlaritzaren enkarguz Soziolinguistika Klusterrak egin zuen proiektu horren lanketa teknikoa, eta bi jomuga izan zituen hasieratik: batetik, Euskaraldiak herritarren hizkuntza ohituretan izan zezakeen eragina argitara ekartzea; eta bestetik, herritarrek ekimenaz zuten iritzi eta ideiak jasotzea. Euskal Herri osoko parte hartzaileen datuak bildu ziren galdetegi bidez eta emaitza horien azterketak herritarren hizkuntza ohituren berri eman eta Euskaraldiak horiengan izandako eragina bistaratu zuen.

Datu bilketa oparo horrek Euskal Herri mailako emaitzak ez ezik, herri mailakoak ezagutzeko aukera ere zabaldu zuen, eta Soziolinguistika Klusterrak zerbitzu gisa eskaini zuen horien berri izateko aukera.

Dokumentu honek, hain zuzen ere, Zornotzako herritarren datuak eskaintzen ditu, emaitza horiek bost atal nagusitan sailkatuz. Batetik, *3.1. Parte hartzaileak* atalean ekimenean aritu eta galdetegiak erantzun dituzten Zornotzako herritarren datu orokorrak eskaintzen dira. Bigarren eta hirugarren ataletan (*3.2 Ahobiziak* eta *3.3 Belarriprestak*), bi roletan jardun dutenen datuak topa daitezke hurrenez hurren. Laugarren atalean, *ahobizi* eta *belarriprestek* beraien artean izandako hizkuntza hartuemanak atera dira argitara (*3.4 Ahobizi eta Belarripresten arteko harremanak*). Ondoren, Zornotzako datuak bere gune soziolinguistiko bereko gainontzeko herrien datuekin alderatzen dira (*3.5 Herria eta bere gune soziolinguistikoa*). Eta azkenik, datuen irakurketa orokor bat eskaintzen da (*4. Datu nagusien irakurketa*) puntu garrantzitsuenen laburpena eginez.

## 2. Ohar metodologikoak

Euskaraldiak herritarren hizkuntza ohituretan izan duen eragina nolakoa izan den ikusteko, azterketa longitudinal bat burutu da, ekimeneko une desberdinetan herritarren hizkuntza ohiturak nolakoak diren neurtu dituen. Zehazki, galdetegi bidezko hiru neurtza egin dira hiru garai desberdinetan:

1. Lehenengo galdetegi: Euskaraldia hasi aurretik (2018ko azaroaren 23 baino lehen)
2. Bigarren galdetegi: Euskaraldia amaitu berri (2018ko abenduaren 3a ondoren)
3. Hirugarren galdetegi: Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera (2019ko martxo)

Ikerketan hiru galdetegiak bete dituzten pertsonen datuak hartu dira soilik kontuan. Izan ere, galdetegi bat edo bi bete izateak parte hartzaileen hizkuntza ohituren inguruko informaziorik eskaintzen badu ere, hiru galdetegiak bete dituzten emaitzek baino ez dute ematen Euskaraldiaren uneko zein luzetarako ondorioak neurtzeko aukera.

Hau kontuan izan da galdetegien bidalketa egiteko momentuan. Lehen galdetegi Euskaraldian izena eman duten guztiei igorri zaie; bigarrena, lehena erantzun dutenek bakarrik jaso dute; eta hirugarrena, lehena eta bigarrena bete dutenei baino ez zaie bidali. Zornotzako kasuan, ondokoak dira galdetegi bakoitzean jasotako emaitzak:

1. Lehen galdetegi: Bidalketa 1.775 pertsonari; jasotako erantzunak 491
2. Bigarren galdetegi: Bidalketa 491 pertsonari; jasotako erantzunak 354
3. Hirugarren galdetegi: Bidalketa 354 pertsonari; jasotako erantzunak 213 (ikerketako lagina)

Galdetegi bakoitzean euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko itaunak egin zaizkie parte-hartzaileei. Horrek ahalbidetu du, batetik, parte hartzaileen unean uneko hizkuntza portaera nolakoa den ikusi eta aztertzea. Horrekin batera, bestetik, momentu bakoitzeko datuak alderatuz, *11 egun euskaraz* ekimenak parte-hartzaileen hizkuntza ohituretan izan duen eragina zenbatekoa eta nolakoa izan den ikusi da. Galdetegiak posta elektronikoz jaso dituzte parte-hartzaileek eta bertan zuzenean erantzuteko aukera izan dute, Internet bidez<sup>1</sup>.

Ikerketa hau, beraz, borondatezko lagin handi batean oinarritu da; kideak zoriz aukeratu beharrean haien inizatibaz hurbildu direnen emaitzak jasoz. Laginketa molde honek berekin dakar lagin zabal eta aberats bat lortzeko aukera, eta horrekin batera emaitza baliagarriak eskuratzekoa. Baina aldi berean, baditu bere ahuldadeak ere, izan ere, nahi duenari parte hartzeko aukera emateak lagina eta unibertsoaren arteko alborapena ekar dezake (hau da, laginaren ezaugarriak eta ekimenean parte hartzeko Zornotzan izena eman dutenenak desberdinak izatea). Hori jakinik, komeni da lagina eta unibertsoa alderatzea, eta alborapena egotekotan, datuen interpretazioan horiek kontuan hartzea.

1 Jasotako emaitza guztiak datu base batean jaso dira Datu Pertsonalen Babeserako Legeak eskatzen dituen irizpide guztiak egoki beteaz.



- Zornotzan Euskaraldian parte hartzeko izena emandako pertsona kopurua: 1.775<sup>2</sup>
- Hiru galdetegiak bete dituzten pertsonen kopurua: 213

Lagin hau zorizkoa izan balitz, jasotako emaitzen konfiantza maila % 95 litzateke, eta errore maila  $\pm 6,3$ koa. Kasu honetan, ordea, lagina boluntarioa denez konfiantza mailari begiratu ordez lagina eta unibertsoaren arteko alborapenari behatzea komeni da. Ondokoa erakusten du lagina eta unibertsoaren arteko alderaketak:

- a) Generoari dagokionez: Lagina unibertsoa baino nabarmen *femeninoagoa* da, (laginean %65 dira emakumeak; unibertsoan %78).
- b) Adinari dagokionez: Laginaren batz besteko adina urtebete zaharragoa da unibertsoaren kasuan baino (44 urte laginean eta 43 urte unibertsoan).
- c) Rolei dagokionez: Lagina *ahobiziagoa* da, nahiz eta aldea txikia izan bien arten (laginean %81 dira *ahobizi*; unibertsoan %79).

Laginaren inguruan sor daitekeen beste zalantzetako bat da galdetegiak bete dituzten pertsonak Euskaraldian izena eman dutenak baino euskaltzaleagoak direla pentsatzea. Tamalez, hori ezin da zuzenean egiaztatu, ez baitago Euskaraldian izena eman dutenen hizkuntza ezaugarriei buruzko daturik. Baina bestelako alderaketarik egin daiteke: lehenengo galdetegiak bete dutenen (491 lagun) eta hiru galdetegiak bete dituztenen artekoa (213 lagun). Alderaketa horretan honakoa ikus daiteke.

- a) Hizkuntza gaitasunean (ulermenean eta mintzamenean) lehen galdetegiak bete dutenen eta hiru galdetegiak bete dituztenen artean ez dago alderik: 5etik 4,9ko batz bestekoa eman dute ulermenean eta 4,8 mintzamenean batzuk zein besteek.
- b) Euskaraz mintzatzeari emaniko garrantzia mailan emaitza oso antzekoa izan da bi kasuetan: 5etik 4,3ko batz besteko puntuazioa atera dute lehen galdetegi erantzun dutenek soilik eta 4,4koa hirurak erantzun dituztenek.
- c) Hizkuntzaren erabileran ere apenas dago alderik: 5etik 3,6ko batz bestekoa atera dute galdetegi bakarria bete dutenek eta 3,7ko batz bestekoa hirurak bete dituztenek.

Guztia kontuan izanik ikus daiteke generoari eta rolari dagokionez nabarmena den alborapen bat badagoela eta hori kontuan hartu beharrekoa dela datuen irakurketan. Gainontzekoan, aldiz, apenas dago lagina eta unibertsoaren arteko alderik.

Oro har, beraz, esan liteke laginak unibertsoa *nahiko ongi* ordezkatzeko duela eta informazio baliagarria eskaintzen duela herritarren hizkuntza ohituren joerak eta bilakaerak ulertzeko, bai eta Euskaraldiak horiengan izan duen eraginean sakontzeko ere.

<sup>2</sup> Ikerketarako 2018ko azaroaren 23a baino lehen izena eman zutenen kopurua hartzen da kontuan, nahiz eta jakin Euskaraldia hasi ondoren ere izena eman zuen jenderik egon zela.

### 3. Datu orokorrak

#### 3.1. Parte-hartzaileak

##### 3.1.1. Zereginen arabera: ahobizi eta belarriprestak

<b>Euskaraldian izena eman dutenak guztira (2018ko azaroak 23 baino lehen egindako izen emateak soilik)</b>		<b>1.775</b>
3 Galdetegiak erantzun dituztenak	Ahobizi	174
	Belarriprest	39
	Guztira	213

1. taula

Ohar metodologikoetan aipatu den moduan, 2018ko azaroak 23 baino lehen izen eman zutenak 1.775 herritar baziren ere, 213 pertsonak erantzun dituzte hiru galdetegiak. Horiek osatu dute, beraz, ikerketako lagina. 213 pertsona horietatik gehiengoa *ahobizi* rolean aritu da Euskaraldian (174 lagun, % 81,7); aitzitik, gutxiengoa izan da *belarriprest* 11 egun horietan (39 lagun, % 18,3).

##### 3.1.2. Generoaren eta adinaren arabera

	<b>Emakumezkoa</b>	<b>Ez-binarioa</b>	<b>Gizonezkoa</b>
16-24	13	0	3
25-34	30	0	3
35-49	77	1	22
50-64	42	0	15
65etik gorakoak	5	0	2
<b>Guztira</b>	<b>167</b>	<b>1</b>	<b>45</b>

2. taula

Generoaren arabera, hiru galdetegiak erantzun dituztenen artean, emakumezkoak hiru laurden baino gehiago izan dira (167 lagun, % 78,4); eta horien ondoren datoz gizonezkoak, laurdena baino gutxiago direnak (45 lagun; % 21,1) eta, azkenik, ez-binarioa den pertsona bakarrak erantzun ditu hiru galdetegiak.

Adinari dagokionez emakumezko eta gizonezkoen artean nagusi dira 35-49 urte artekoak (emakumezkoetan %46; gizonezkoetan % 49), eta jarraian, zifra baxuagoetan, 50-64 urte arteko parte hartzaileak dira bigarren gehiengoak. Adin talde honetan gizonezkoen herena kokatzen da (% 33) eta emakumezkoen laurdena (% 25). Gainontzeko adin tarteei dagokionean, gazteenen eta helduenen artean, emakumezkoak dira nagusi. Parte hartu duten emakumezko gazteak (16-24 urte artekoak) adin bereko gizonezkoak baino nabarmen gehiago dira (emakumezkoen % 18 dira gazteak; gizonezkoen artean % 6). Genero kategoria guztietan talde urriena adinekoek osatzen dute (65 urtetik gorakoek); emakumezkoetan bost lagun izan dira guztira eta gizonezkoetan aldiz bi (emakumezkoen % 3 eta gizonezkoen % 4,4).

### 3.1.3. Gaitasunaren arabera


		<i>Mintzamena</i>					
		Ez naiz gai	Hitz batzuk	Esaldi errazak	Elkarrizketa errazak	Ongi	Guztira
<i>Ulermena</i>	Ez naiz gai	0	0	0	0	0	0
	Hitz batzuk	0	0	0	0	0	0
	Esaldi errazak	0	0	2	0	0	2
	Elkarrizketa errazak	0	1	4	10	0	15
	Ongi	0	0	0	13	183	196
	Guztira	0	1	6	23	183	213

3. taula

Laginaren gehiengoak ez du zailtasunik euskaraz mintzatzeko edo ulertzeko, % 86 gai baita euskara “ongi” ulertzeko eta hitz egiteko (183 lagun). Kopuru urriago batek, mintzatzeko elkarrizketa errazetan moldatzen da eta euskaraz “ongi” ulertzen du (13 lagun, % 6,1) edo “elkarrizketa errazak” ulertzeko moduan da (10 lagun, % 4,7). Bestalde, beste % 3 (6 lagun) batek esaldi errazen bitartez komunikatu daiteke euskaraz, nahiz eta guztizko ulermen mailarik ez izan. Gainerako kategoriek oso pisu txikia hartu dute laginean (pertsona bat edo bikoia, kasu bakoitzean).



### 3.1.4. Motibazioaren bilakaera



1. grafikoa<sup>3</sup>

1. grafikoa, herritarrek euskaraz hitz egiteari eman dioten garrantzia maila agertzen da. Hain zuzen ere, ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa. Emaitzen argitan, ikus daiteke garrantzia “oso handia” eta “handia” ematen dioten parte hartzaileak direla hiru neurketetan kopurutsuenak. Gainera, aldaera batzuk eman badira ere, hiru galdetegien artean eman den bilakaera nahiko leuna dela esan daiteke.


Euskaraldiko 11 egunen ondotik (2. galdetegia) euskaraz aritzeari garrantzia “oso handia” ematen diotenak 10 puntu hazi dira (% 49tik % 59ra); “oso handia” eta “handia” kontuan hartuz, ordea, igoera bi puntutakoa izan da (% 94 izate-tik % 96 izatera igaroaz).

Hiru hilabete pasata, kopuru hori zertxobait jaitsi da: lehen galdetegiko unetik 2 puntuko galera sumatu daiteke, hasierako egoerara itzuliz hirugarren galdetegian (% 96etik % 94ra).

<sup>3</sup> Grafikoa irakurketa errazte aldera, % 2a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoa adierazi.

### 3.1.5. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

#### a. Ulertzen dutenekin euskaraz



2. grafikoa<sup>4</sup>


Herritarrek euskaraz ulertzen duten pertsonen artean zenbati egiten dioten euskaraz jasotzen da 2. grafikoa. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Lehenengo galdetegiko erantzunen arabera, Euskaraldia baino lehen, herritarren bi herenak baino zertxobait gehiagok (% 64k) egiten ziren euskaraz ulertzen zuten “guztiei” eta “gehiengoari”. 11 egunak igaro ostean, ordea, nabarmen hazten da ulertzen duten “guztiei” edo “gehiengoari” euskaraz egiten dietenen kopurua, 23 puntuko igoera izanez lehen galdetegitik bigarrenera (% 64tik % 87ra). Beraz, Euskaraldiak euskara erabiltzeko aukerak optimizatu ditu, euskaraz dakitenen artean gehiagori egin baitzaie euskaraz ekimenaren ondotik. Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera, kopuru horrek beherakada izan du, baina ez da ekimenarekin irabazitako guztia galdu. Izan ere, ulertzen duten “guztiei” edo “gehiengoari” euskaraz egiten dietenak lehenengo galdetegian baino gehiago dira hirugarrenean: 12 puntuko igoera (% 64tik % 74ra).

Euskara gutxiago erabiltzen duten horien artean berriz, ulertzen duten inori edo kasik inori euskaraz egiten dien herritarren kopurua desagertu egin da (% 2 ziren lehen galdetegian) eta gutxiengoari euskaraz egiten ziren horien artean 8 puntuko jaitsiera egon da Euskaraldia egin aurretik eta hortik hiru hilabetera (lehen galdetegiko % 13 ziren eta hirugarrenean % 5). Ondorioz, hiru hilabete igaro ostean, euskarazko harreman berri batzuk finkatzea lortu da Zornotzan.

<sup>4</sup> Grafikoa irakurketa errazte aldera, % 2a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoa adierazi.

**b. Ingurukoen hizkuntza erabilera**




3. grafikoa

3. grafikoa herritarrek haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua ikus daiteke. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Datuek erakusten dute herritarrek haien inguruan entzun duten euskara kopurua zerbait aldatu dela Euskaraldiaren ondorioz. Ikus daitekeenez, "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz entzuten dutenen kopuruak 14 puntutan egin duela gora Euskaraldian ("dena" eta "erdia baino gehiago" elkarrekin hartuz % 47 izatetik % 61izatera igaroaz). Euskaraldian zehar, beraz, jendartean euskara gehixeago erabili dela hauteman dute parte hartzaileek. Ekimena igaro eta hiru hilabetera, ordea, beheranzko joera egin da eta hasierako puntura itzuli dira. Zehazki, 2 puntuko jaitziera izan du ingurukoen hizkuntza erabilerekin hautematea "dena" eta "erdia baino gehiago" zela jo dutenen lagina Euskaraldia egin aurretik eta hiru hilabete ondoren. Bi kategoriak elkarrekin hartuz % 45era jaitsi baita (hasieran % 47 ziren).

Beraz, esan daiteke, euskara gehiago entzuten zela ekimenean zehar eta hau bukatu bezain laster, baina hiru hilabete-  
ra hizkuntza joerak ez direla egonkortu.

**c. Norberaren hizkuntza erabilera**




4. grafikoa

4. grafikoa ikus daiteke herritarrek haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopuruaren bilakaera nolakoa izan den. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Euskaraldia hasi baino lehen "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak parte hartzaileen bi heren dira (bi kategoriak elkarrekin hartuta % 66). Euskaraldiko 11 egunen ostean, ordea, modu esanguratsuan egiten du gora kopuru horrek, "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak 10 puntu irabazi eta % 66 izatetik % 76 izatera igaroaz. Hiru hilabete igaro ondoren, ordea, beherakada nabari daiteke, "dena" eta "erdia baino gehiago" egiten dutenen kopuruak 16 puntu egiten baitu behera (% 76tik % 60ra). Hala, 11 egunez irabazitako guztia baino gehiago galtzen da; 1. galdetegiarekin alderatuta, 3. galdetegian 6 puntuko desabantaila eskuratzen baita (1. galdetegian % 66 eta 3. galdetegian % 60). Beraz, ekimenak eragin du norbanako batzuk haien egunerokoan euskara gehiago erabiltzea, baina ez du lortu ohitura horiek denboran zehar irautea.

**d. Erabilera ezagunekin**


Herritarrek gizarte eremu desberdinetako haien ezagunekin erabili ohi duten euskara kopurua adierazten da. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.



5. grafikoa

Familiaren testuinguruan Euskaraldiak aldaketak eragin dituela ikus daiteke. Lehen galdetegian % 57 dira euskaraz "dena" edo "erdia baino gehiago" egiten dutenak eta zifra hori 16 puntu igotzen da 11 egunen ostean (2. galdetegian % 73 dira). Nolanahi ere, hirugarren galdetegitik eskuratutako informazioaren bitartez honek behera egiten du hiru hilabete igaro ostean, aurretik irabazitakoaren erdia galduz (% 73 izatetik % 65 izatera pasa), baina hala ere adierazgarria da familian "dena" edo "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenen artean 8 puntuko igoera bat egonkortzea lortu dela.


Familian euskararen erabilera gutxiago dutenen artean ere, euskararen aldeko jarrera neurri txikian bada ere errotu dela ikus daiteke. Lehen galdetegian % 28a osatzen zuten "batere ez" edo "erdia baino gutxiago" euskaraz egiten zutenek. Euskaraldia bukatu bezain pronto, 11 puntuz jaitsi zen hau eta hiru hilabete igarota horietatik 7 bere horretara itzuli ziren. Baina % 4k egonkortzea lortu du euskararen erabileran, nahiz eta hau hitz egiten dutenaren portzentaje txikia izan euskaraz egiten dutena.



6. grafikoa

Eremu sozialei dagokionez, lagunartean izan du Euskaraldiak eragin nabarmenena. Ekimenaren 11 egunetan 33 puntu igo da “dena” eta “erdia baino gehiago” euskaraz egiten dutenen kopurua, aurreko ehunekoa bikoiztuz ia (bi kategoriak elkarrekin hartuta % 36 izatetik % 69 izatera igaroaz). Antzeman daiteke, beraz, ingurune sozial honetan euskara erabiltzeko joera modu esanguratsuan areagotzea ekarri duela ekimenak. Hala ere, esatekoa da, hiru hilabeteren ondoren 25 puntuko jaitiera bat izan duela lagunartean “dena” edo “erdia baino gehiago” euskaraz egiten dutenen hizkuntza erabilera. Baina hala ere, hasierako egoeratik (% 36 izatetik) zortzi puntuko egonkortze bat eman da hizkuntza ohitura berrietan (%44 izatera igaro). Ondorioz, Euskaraldiak lagunartean epe motzean ez ezik epe luzean ere utzi ditu emaitzak.


Bestalde, aipatzekoa da baita euskara gutxien erabiltze duten horien artean ere hizkuntza ohituretan aldaketak sustatu dituela Euskaraldiak. 6.grafikoan ikusi daiteke lagunekin euskaraz “batere ez” edo “erdi baino gutxiago” egiten zuten horiek parte-hartzaileen % 39a izatetik % 29 izatera igaro direla Euskaraldia egin eta hortik hiru hilabete bitartean. Beraz, hauen artean ere euskararen aldeko joera berriak sortu direla antzeman dezakegu.



7. grafikoa

Lantokiko hizkuntza ohituretan izan du momentuko eragina Euskaraldiak. Zehazki, euskaraz “dena” edo “erdia baino gehiago” egiten duten horiek % 52 izatetik % 63 izatera igaro ziren ekimenaren ondotik. Igoera hori ordea ez da egonkortzea lortu, denboraren poderioz aurretik lortutako igoera hori berriz ere beherantz joan baitzen ia hasierako egoerara iritsiz (% 54).

Bestela, aipatzekoa da baita euskaraz ia batere egiten ez zuten laneko testuinguruan aldaketa batzuk sumatu daitezkeela. Zehazki, Euskaraldia bukatu bezain laster euskaraz “batere ez” edo “erdia baino gutxiago” egiten zuten horiek 12 puntuko jaitsiera izan zuten eta hau guztiz mantentzea lortu ez bada ere, ikusi da denbora igarota ere 7 puntuko egonkortze bat eman dela, euskaraz gutxien egiten duten horiek Euskaraldiaren aurretik zirenak baino gutxiago izanez (% 20).



8. grafikoa<sup>5</sup>


Ikaslekuei dagokionez, Euskaraldiak ez du eragin nabarmenik eduki. 11 egunen ondotik leunki igotzen da euskaraz "dena" edo "erdia baino gehiago" hitz egiten dutenen kopurua 1. galdetegian % 45 izatetik 2. galdetegian % 48 izatera igaroz. Hirugarren galdetegian bi kategorietako kopurua jaitسي egiten da, hasierako egoera baino portzentai txikiagoa lortuz (% 40). Bestela, gainerako kategorien artean Euskaraldiak ez du aldaketa handirik sortu ikasgelaren esparruan.

Laburbilduz, esparru sozial desberdinetako ezagunekin dauden hizkuntza jokaerei erreparatuz esan daiteke lagunartean eta familian izan duela Euskaraldiak eragin handiena Zornotzako parte-hartzaileen artean. Eremu formaletan (lantokian eta ikaslekuan), berriz, gutxien. Euskararen erabileraren igoera maila berdinean mantendu dute familian eta lagunartean, baina aipatzekoa da epe laburrean sortutako aldaketa adierazgarrienak lagunarteko esparruan emandakoak izan direla.

<sup>5</sup> Grafikoaren irakurketa errazte aldera, % 2a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoan adierazi.



**e. Erabilera ezezagunekin**




9. grafikoa

9. grafikoan jaso dira herritarrek haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jo-kaeraren maiztasunari buruzko datuak. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.

Lehen eta bigarren galdetegietako emaitzak alderatuta ikus daiteke lehen hitza "beti" eta "askotan" euskaraz egiteko joera duten pertsonen kopurua nabarmen hazi dela Euskaraldiaren ondorioz: "beti" eta "askotan" kategoriak elkarrekin hartuz 26 puntu igo da (% 59 izatetik % 85 izatera). Hiru hilabete igaro ondoren, ezezagunei euskaraz zuzentzeko ohitura hainbat kasutan barneratu dela antzeman daiteke, "beti" eta "askotan" egiten dutenak % 71 baitira azken neurketan (lehen neurketarekin alderatuta 12 puntu gehiago).

**f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera**

Herritarrek duten mintzatzeko gaitasunaren arabera, euskara erabiltzeko zer nolako joera duten adierazten da 10. grafikoan. Erabilera hori “ulertzen dutenekin euskaraz egin” aldagaiaren bidez kalkulatu da, eta emaitzak 0-100 eskalara ekarri dira. Eskala horretan 100 “guztiei euskaraz egitea” litzateke eta 0 “inori euskaraz ez egitea”.



10. grafikoa<sup>6</sup>

Emaitzei erreparatuz antzematen da "ongi hitz egiteko" gai direnak aritzen direla gehien euskaraz (72-92 puntu artean), eta "elkarrizketa errazak" esaten dituztenak, aldiz, gutxien (17-65 puntu artean). Maila desberdinetan bada ere, ikus daiteke kasu guztietan hizkuntza ohituren joerak antzeko bilakaera izan duela.


Euskaraldiak eragin positiboa izan du, oro har, eta ulertzen dutenekin euskara gehiago erabiltzeko joera zabaldu du gaitasun maila desberdina duten pertsonen artean. Lehen galdetegitik bigarrenerako igoera horiek 20 eta 48 puntu-koak izan dira “ongi hitz egiteko” eta “elkarrizketa errazak izateko” gai direnen artean, hurrenez hurren. Azpimarragarria da, Euskaraldiaren ostean, “elkarrizketa errazak” izateko gai direnen euskararen erabilera-maila ia laukoiztu egin dela.

Hiru hilabete igarota, euskara erabiltzeko joerak behera egin du maila guztietan. Lehenengo galdetegiko emaitzekin alderatuz, “ongi hitz egiten” dutenen kasuan, praktika berri gutxi batzuk finkatu dira (lehen galdetegitik 7 puntuko irabazia dago); “elkarrizketa errazak” esateko gai direnek, berriz, zenbait harreman euskaraz egonkortu dituztela ikus daiteke, lehen galdetegitik 18 puntuko igoera izan baitu erabilerak (17tik 38ra).

<sup>6</sup> 10. grafikoan ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 3. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute edo ez dute laginik (“ez naiz gai”, “hitz batzuk” eta “esaldi errazak”). Horiek grafikoko datuak desitxuratzea eta interpretazio akastunak egitea dakar-te. Hartara, kasu honetan “mintzatzeko gaitasun ona” dutenen eta “elkarrizketa errazak” izateko gai direnen emaitzak jasotzen dira.

**g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera**

Jarraian, solaskidearen hizkuntza-gaitasunaren araberako euskararen erabilera aztertuko da. Horretarako, ondorengo lau grafikoetan hizkuntza gaitasun desberdinen aurrean parte hartzaileek izan duten jokaerari buruzko informazioa ageri da. Ehunekoetan (%) zehazten da kategoria bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.




11. grafikoa

Solaskideak euskaraz ondo ulertzen duen kasuetan (11. grafikoa), euskaraz “beti” eta “askotan” egiten dutenak ia heren bat dira lehen galdetegian (“beti” % 8 eta “askotan” % 24). Euskaraldiaren eraginez, ordea, kopuru horrek gorantz egin du 11 egunen ostean, eta “beti” eta “askotan” euskara erabiltzen dutenen kopurua ia indar handiarekin hazten da, parte-hartzaileen % 57 izatera iritsiz. Hiru hil pasatakoan joera horrek behera egin du, ia hasierako egoerara itzuliz guztiz. Hala ere, 2 puntuko irabazi bat egonkortzea lortu dela aipatu behar da (% 32 izatetik % 34 izatera igaro dira).


Bestalde, aipatzekoa dira euskara gutxiengoan erabiltzen duten horien artean, “inoiz” erabiltzen ez dutenen eta “gutxitan” erabiltzen dutenen artean hain zuzen, 13 puntuko jaitsiera izan dela Euskaraldia hasi zenetik hiru hilabete igaro bitartean. Aldi berean, ikus daiteke “batzuetan” egiten duten horietan 11 puntuko egonkortze bat eman dela. Beraz, gehien erabiltzen duten horiez gain, inoiz edo oso gutxitan euskaraz egiten zuten horien artean ere ohitura berriak errotzea lortu dela ikusi daiteke, euskara erraztasunez ulertzeak aldaketa guztiz errazten duela argitara ateraz.

**Euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekiko erabilera**



12. grafikoa


Euskaraz zailtasunez ulertzen duen solaskidearekin topo eginez gero (12. grafikoa) euskara erabiltzeko aukerak nabarmen jaisten dira. Euskaraldia hasi aurretik, % 11 aritzen zen euskaraz “beti” eta “askotan” solaskideak euskara ulertzeko zailtasunak zituenean. Zifra horrek ordea nabarmen egiten du gora ekimenaren ondotik, laurdena izatera iritsiz (% 25). Hirugarren galdetegian, ordea, irabazitakoa ia guzti hasierako egoerara itzultzen da. Datuen argitan, esan daiteke euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekin euskara erabiltzea dela egoera linguistiko arazotsu edo konplexuenetarikoa bat, eta Euskaraldian zehar ohitura batzuk aldatzea lortu bazen ere, oso zaila dela hauek egonkortuta geratzea.



13. grafikoa<sup>7</sup>

Solaskidea euskaraz erraztasunez mintzatzen denean (13. grafikoa), euskararen erabilera izugarri zabala da. Halako egoeretan euskaraz "beti" eta "askotan" aritzen direnen kopuruak % 94 dira edo hemendik gora daude hiru neurkete-tan. Gainera, aldaketa txikiak badira ere, igoeran izan dute, bai Euskaraldiaren ondotik eta baita hau bukatu eta hortik hiru hilabetera bitartean ere. Ez da harritzekoa, izan ere, zifra hain altuak izanik uler daiteke euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin euskara erabiltzeko joera oso egonkortua dagoela, eta ondorioz, aldaketarako (hobetzeko) margen gutxi geratzen dela.

<sup>7</sup> Grafikoren irakurketa errazte aldera, % 2a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoa adierazi.



14. grafikoa

Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekin euskaraz "beti" edo "askotan" dihardutenak gehiengoa dira hiru neurketetan (14. grafikoa). Hala ere, honek beheranzko joera izan du prozesu guztian zehar. Aurretik aipatutako bi kategorien batura 19 puntu jaitsi da lehen galdetegitik hirugarrengora (2 puntu lehenengotik bigarrenera eta 17 puntu bigarreneratik hirugarrenera). Hau horrela medio, euskaraz "batzuetan" egiten duten kategoriaren portzentaiak 15 puntuko igoe-ra izan du lehen galdetegitik hirugarrengora.

Laburbilduz, ikusi da solaskidearen hizkuntza gaitasuna euskararen erabilera handitzeko faktorea dela. Hala, euskararen erabilera gehien hazi den kasua solaskideak "euskaraz erraztasunez ulertzen duenean" izan da.

## 3.2. Ahobiziak

Atal honetan, *ahobizien* hizkuntza-jokaerak eta horien bilakaerak aztertu dira.

2. *Ohar metodologikoak* atalean azaldu den moduan, laginean dauden *ahobizien* kopurua altua izanik, datu orokorren (lagin osoaren) eta *ahobizien* emaitzak oso antzekoak dira. Ez da harritzekoa, beraz, *ahobiziei* zuzenduriko atal honetan, aurretik ikusitako joera berdintsuak errepikatuak ikustea.

### 3.2.1. Generoaren eta adinaren arabera

	<i>Emakumezkoa</i>	<i>Ez-binarioa</i>	<i>Gizonezkoa</i>
16-24	12	0	2
25-34	28	0	3
35-49	63	1	17
50-64	32	0	11
65etik gorakoak	4	0	1
<i>Guztira</i>	139	1	34

4. taula

Generoari dagokionez, *ahobizien* % 80 emakumezkoak dira (139 lagun), % 19,5 gizonezkoak (34 lagun) eta azkenik, bakarra izan da genero ez-binarioan kokatu den pertsona kopurua.

Adinari erreparatuz, datu orokorretan ikusi den joera errepikatzen da hemen ere. Hala, *ahobizien* kategorian ere 39-45 adin tartean kokatzen dira lagina osatu duten zatirik handiena, bai emakumeen kasuan eta baita gizonezkoetan ere. Zehazki, gizonezko *ahobizien* artean % 50 dira 35-49 adin tartekoak eta emakumezkoan kasuan % 45. Datu orokorretan ikusi bezala, 50-64 urte arteko parte-hartzaileak dira bigarren gehiengoak, eta gizonezkoetan portzentaje handiagoa (% 32) dute emakumezkoenean (% 23) baino, nahiz eta pertsona kopurua handiago izan emakumeena. Gazteagoen kasuan, 25-34 urte bitarteko *ahobizi* emakume kantitate adierazgarri batek (% 20) osatu du lagina, nahiz eta gizonezkoen kasuan bi lagun bakarrik izan diren. Gazteenen eta helduenen kasuan berriz, (16-24 eta 65 baino gehiago) bi genero kategorietan talde urrienak izan dira.

### 3.2.2. Gaitasunaren arabera


		<i>Mintzamena</i>					
		Ez naiz gai	Hitz batzuk	Esaldi errazak	Elkarrizketa errazak	Ongi	Guztira
<i>Ulermena</i>	Ez naiz gai	0	0	0	0	0	0
	Hitz batzuk	0	0	0	0	0	0
	Esaldi errazak	0	0	0	0	0	0
	Elkarrizketa errazak	0	0	0	1	0	1
	Ongi	0	0	0	5	168	173
	Guztira	0	0	0	6	168	174

5. taula

5.taulari erreparatuz gero, ikus daiteke mintzamenari dagokionez *ahobizien* artean nabarmenki nagusitzen direla euskaraz “ongi” hitz egiteko gai direnak (168 lagun; % 96) eta ulermenari dagokionez ere, euskaraz “ongi” ulertzen dutenak dira nagusi (173 lagun, *ahobizi* guztien % 99). *Ahobizien* profila, beraz, euskaraz hitz egin eta ulertzeko arazorik ez dutenak osatu dute.



### 3.2.3. Motibazioaren bilakaera




15. grafikoa

15.grafikoak adierazten du *ahobiziek* euskaraz hitz egiteari ematen dioten garrantzia maila. Ehunekotan islatzen da erantzun bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.

*Ahobiziek* euskaraz hitz egiteari ematen dioten garrantzia maila (15.grafikoa) datu orokorrekin alderatzen bada (1.grafikoa) oso antzekoak diren joerak ikus daitezke. *Ahobizien* artean ere nagusi dira euskaraz hitz egiteari garrantzia “oso handia” eta “handia” ematen dietenak, eta joera hori datu orokorretan baino handiagoa da *ahobizietan*. Zehazki, aipatutako bi kategoriak Euskaraldian zehar, bai eta hiru hilabete igaro ostean ere (% 96- % 97 artean mantentzen da hiru neurketetan). Egia da puntu batzuen gorabeherak izan direla bi kategorien artean, baina orokorrean, esan liteke *ahobiziek* garrantzia-maila altua adierazi dutela euskaraz hitz egiteari (oro har parte-hartzaileek baino altuxeagoa gainera).

### 3.2.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

#### a. Ulertzen dutenekin euskaraz




16. grafikoa

16. grafikoak adierazten du *ahobiziek* euskaraz ulertzen duten pertsonen artean zenbati egiten dioten euskaraz. Ehunekoetan islatzen da erantzun bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.

Datu orokorretan ikusi den bezala, guztiei edo gehiengoari euskaraz egiten dioten pertsona kopurua nabarmen gehiengoa da *ahobizien* kasuan ere. Gainera, *ahobizien* artean, hauen pisua geroz eta handiagoa da. Zehazki, bi kategoria horietan kokatzen diren pertsonen *ahobizien* % 73 osatu zuten lehen galdetegian, 19 puntuko igogerarekin Euskaraldia bukatu bezain laster (% 92) eta % 80ean geratuz hiru hilabete igaro ostean. Beraz, bigarren neurketatik hirugarrenera jaitsiera bat ikusi badaiteke ere, 7 puntuko egonkortzea gertatu da “guztiei” edo “gehiengoari” euskaraz egiten dieten Zornotzako *ahobizien* artean. Gainera, aipatzekoa da euskaraz “gutxiengoari” egiten zien horiek ekimenaren ondoren ia desagertu egin zirela eta horrela jarraitu dutela hortik hiru hilabetera ere (% 1).

**b. Inguruko hizkuntza erabilera**




17. grafikoa

*Ahobiziek* haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua adierazten du 17.grafikoak. Ehunekotan azaltzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.

Datu orokorretan bezala (3.grafikoa), *ahobizien* artean ere Euskaraldiak iraun duen bitartean haien inguruan euskara gehiago entzun izana hauteman da. Hala ikus daiteke lehen eta bigarren galdetegietako datuak alderatzen direnean: entzuten duten “dena” eta “erdia baino gehiago” euskaraz dela adierazi duten *ahobiziak* 12 puntutan igo dira (% 54 lehen galdetegian eta % 66 bigarren galdetegian). Hiru hilabete igaro ondoren ordea, hasierako egoerara itzuli dira hizkuntza ohitura berriak.

Hau horrela, ikus daiteke datu orokorretan gertatu bezala, Euskaraldiak eragin nabarmena izan zuela *ahobiziek* inguruan entzuten zuten euskararen erabilera igoerarekin, baina egunerokoan euskara gehiago entzuteko joera horri ez zaio eutsi denboran zehar.

**c. Norberaren hizkuntza erabilera**



18. grafikoa


*Ahobiziek* haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopuruari erreparatzen zaio 18.grafikoan. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.

Datu orokorretan ikusi bezala, *ahobizietan* ere euskara erabiltzeko joera areagotu dela ikus daiteke Euskaraldian zehar. Euskaraldia hasi baino aurreko egunetatik hau bukatu bezain laster 19 puntuko igoera ikus daiteke “dena” edo “erdia baino gehiago” euskaraz egiten dutenen artean norberak izan duen euskararen erabileran (% 66 lehen galdetegian eta % 85 bigarren galdetegian). Berdina geratu da euskara gutxien erabiltzen duten horien artean ere. Euskaraldiaren ildotik, 10 puntuko jaitsiera izan dute “batere ez” eta “erdia baino gutxiago” euskaraz egiten zuten horiek, baina denboran zehar bere ia hasierako posizioa itzuli dira.

Hala ere, datu orokorrekin ikusi den bezala, honen egonkortzea oso txikia izan da bada ere, Euskaraldian bereganatutako euskararen aldeko hizkuntza praktika guztiak gehien erabiltzen duten horien artean % 3 mantentzea lortu da eta gutxien erabiltzen zuten horien artean % 4ko jaitsiera mantentzea.

#### d. Erabilera ezagunekin


Ondoko grafikoetan *ahobiziek* gizarte eremu desberdinetako haien ezagunekin erabili duten euskara kopurua adierazten da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa.



19. grafikoa

Kasu honetan ere datu orokorretan (5. grafikoa) eman diren joera berdintsuan antzeman daitezke *ahobizien* emaitzetan, nahiz eta *ahobizien* kasuan euskararen erabilera handiagoa izan.

Euskaraldia abian jarri aurretik *ahobizien* bi herenek zuen "dena" edo "erdia baino gehiago" euskaraz egiteko joera (% 66) familiaren testuinguruan. Kopuru hori indarrarekin hazten da ekimeneko 11 egunetan eta etxe giroan "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak 15 puntuko igoera dute 2. galdetegian (% 81ra igaroaz bi kategoriak kontuan izanik). Epe luzera "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenen nagusitasun hori mantendu egiten da, baina aurretik izandako irabaziaren erdia galduz. Hau da, 8 puntuko egonkortze bat ematen da "dena" edo "erdia baino gehiago" euskaraz egiten duten familietan (% 74). Joera hau parte-hartzaile guztietatik ateratakoaren berdina izan dela ikusi da *ahobizietan* ere.




20. grafikoa

Parte hartzaile guztien datuetan ikusi bezala (6. grafikoa), *ahobizien* artean ere agerikoa da Euskaraldiak lagunartean izandako eragina eta hauen bilakaera ere oso antzekoa izan da *ahobizien* kasuan datu orokorretan ikusi direnekin alderatuz.


Euskaraldia abian jarri aurretik *ahobizien* ia erdiak zuen "dena" edo "erdia baino gehiago" euskaraz egiteko joera (% 44). Kopuru horrek izugarri egiten du gora ekimeneko 11 egunetan, eta lagun giroan "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak 34 puntu hazten dira ekimenaren eraginez (bi kategoriak kontuan izanik % 44 izatetik % 78 izatera igaroaz). Epe luzera begira, hirugarren galdetegiarekin ikusi da aldaketa horiek beherakada izan dutela, baina 8 puntuko igoera bat mantenduz hasierako puntutik (% 51).

Ehuneko txikiagoa osatzen duten kategoriei erreparatuz gero aldiz, ikus daiteke euskaraz "inoiz ez" edo "erdia baino gutxiago" egiten zutenak 9 puntu galdu dituztela, eta beraz, uler daiteke, *ahobizien* lagunarteko harremanetan euskarazko hartu-eman batzuk finkatzen lagundu duela ekimenak; bai lagunartean euskara gehien erabiltzen dutenen artean eta baita gutxien erabiltzen dutenen artean ere.



21. grafikoa

Lan esparruan ere datu orokorretan izandako bilakaera errepikatu dela ikus daiteke *ahobizien* kasuan. Epe laburrean, hau da, ekimena bukatu bezain pronto lantokian “dena” edo hitz egiten dutenaren “erdia baino gehiago” euskaraz egiten zutenak hamar puntu hazi ziren (% 57 izatetik % 67 izatera igaroaz). Hiru hilabeteren ondoren ordea, igoera hau hasierako puntura itzuli zen. Beste muturreko kategoriei dagokienean ere, Euskaraldian zehar eta hau bukatuta euskaraz lantokian “batere ez” edo “erdia baino gutxiago” egiten zuten horiek 9 puntuko jaitsiera izan zuten, baina hau berri ere aurreko egoerara itzuli da denboraren poderioz.



22. grafikoa<sup>8</sup>


Datu orokorrekin ikusi bezala, Euskaraldiaren eragina beheranzkoa izan da *ahobizien* kasuan ere. Euskaraldia hasi baino lehen, ia erdiek (% 48) ikasgelan “beti” edo “erdia baino gehiago” egiten zuten euskaraz eta honek 5 puntuko igotzera izan bazuen ere Euskaraldia bukatu ostean, hiru hilabete igaro ondoren % 44an geratu da bi kategorien batura.

Laburbilduz, *ahobizien* datuak parte hartzaile guztien datu orokorrekin alderatuz gero ikus daiteke esparru sozial desberdinetako hizkuntza ohituren joera nagusiak errepikatu egiten direla. Zehazki, epe laburrean, ekimenak lagunartean izan du eraginik handiena, baina epe luzera hizkuntza praktika berriak modu oso antzekoan egonkortu dira familiaren esparruan ere. Emaitzak ahulagoak izan dira ikaslekuan eta lantokian. Hauetan euskararen aldeko aldaketa positiboak oso txikiak izan dira.

<sup>8</sup> Grafikoaren irakurketa errazte aldera, %3a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoa adierazi.



**e. Erabilera ezezagunekin**




23. grafikoa

23.grafikoan erakusten du *ahobiziek* haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jokaera maiztasuna. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen *ahobizien* proportzioa.

Emaitza orokorretan ikusitako joera errepikatzen da kasu honetan ere, nahiz eta *ahobizien* kasuan euskararen erabilera handiago den ikusi: *ahobiziek* ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko joera bereziki areagotu dute Euskaraldian. Euskaraz “beti” edo “askotan” zuzentzen direnen kopurua 22 puntutan hazi da 11 egunen ondoren (bi kategoriak kontuan hartuz % 68tik % 90era igaroaz). Eta, epe luzera begira, guztia ez bada ere, lehen galdetegiarekin alderatuta 8 puntu hazi baita euskaraz “beti” edo “askotan” egiten dutenen kopurua (bi kategoriak aintzat izanik % 68etik % 76ra).

*f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera*



24. grafikoa<sup>9</sup>

24. grafikoa *ahobiziek* duten mintzatzeko gaitasunaren arabera euskara erabiltzeko duten joera nolakoa den agertzen da. Kasu honetan, 10. grafikoa bezala, “ulertzen dutenekin euskaraz egin” aldagaia kontuan hartuz osatu den indizea baliatu da erabilera adierazteko. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 “euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea” den eta 0 “euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea” den.


Emaitza orokorretan ikusi den bezala, Euskaraldiak eragin positiboa izan du *ahobizietan* ere, oro har, eta ulertzen dutenekin euskara gehiago erabiltzeko joera zabaldu du gaitasun maila desberdina duten pertsonen artean. Lehen galdetegitik bigarrenenerako igoera horiek 17 eta 50 puntuak izan dira “ongi hitz egiteko” eta “elkarrizketa errazak izateko” gai direnen artean, hurrenez hurren.

Hiru hilabete igarota, euskara erabiltzeko joerak behera egin du maila guztietan. Lehenengo galdetegiko emaitzekin alderatuz, “ongi hitz egiten” dutenen kasuan, praktika berri gutxi batzuk finkatu dira (lehen galdetegitik 7 puntu irabazia dago); “elkarrizketa errazak” esateko gai direnek, berriz, zenbait harreman euskaraz egonkortu dituztela ikus daiteke, lehen galdetegitik 17 puntu igoera izan baitu erabilerak (74tik 81era).

<sup>9</sup> 24. grafikoa ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 5. taulan ikus daitekeen moduan, hiru kategoriek ez dute laginik (“ez naiz gai”, “hitz batzuk” eta “esaldi errazak”). Hartara, kasu honetan “ongi” mintzatzeko direnen eta “elkarrizketa errazak” esateko gai direnen emaitzak jasotzen dira soilik.

**g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera**

Jarraian, solaskidearen hizkuntza-gaitasunaren arabera euskararen erabilera aztertuko da. Horretarako, ondorengo lau grafikoetan hizkuntza gaitasun desberdinen aurrean parte hartzaileek izan duten jokaerari buruzko informazioa ageri da. Ehunekoetan (%) zehazten da kategoria bakoitza hautatu duen pertsona kopuruaren proportzioa.




25. grafikoa

Emaitza orokorretan antzeman bezala (11. grafikoa), *ahobizien* kasuan ere, euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekiko erabilera (25. grafikoa) nabarmen hazi da Euskaraldian zehar. “Beti” eta “askotan” euskaraz aritzen direnen kopurua herena baino zertxobait gehiago izatetik (% 35) ia bi heren izatera igarotzen dira ekimenaren ondotik (% 64). Hirugarren galdetegian zifra horrek atzera egiten du, eta hasierako egoerara itzuli dira bi kategoria horietan sortutako hizkuntza ohitura berriak.

Euskararen erabilera txikiagoa den horien artean berriz, hainbat aldaketa egonkortzea lortu da. Zehazki, euskaraz “inoiz ez” edo “gutxitan” egiten zuten horiek *ahobizien* % 27 izatetik lehen galdetegian, % 17 izatera jaitsi dira hirugarren galdetegirako. Beraz, euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin euskaraz gehien egiten zuten horien hizkuntza ohiturak egonkortsu ez badira ere, ikus daiteke euskararen aldeko aldaketa eman eta lehen gerturapenak horiek egonkortzeko balio izan duela Euskaraldiak kasu honetan.

**Euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekiko erabilera**




26. grafikoa

Euskaraz ulertzeko zailtasunak dituzten eledunekin euskaraz aritzea ez da erraza izan. Hala ikus daiteke 26.grafikoko emaitzetan: Euskaraldia hasi aurretik, *ahobizien* % 13 aritzen zen euskaraz “beti” edo “askotan” euskaraz zailtasunez ulertzen zutenetik. Zifra horrek ordea nabarmen egiten du gora ekimenaren ondotik, laurdena baino gehiago izatera iritsiz (% 29). Hirugarren galdetegian, ordea, irabazitakoa bere hasierako egoerara itzultzen da, emandako aldaketak egonkortzea lortu gabe.

Joera berdina izan da euskara gutxien erabiltzen zuten horien kasuan ere. Euskaraldia bukatua, 25 puntuko jaitziera izan zuten euskaraz “inoiz ez” edo “gutxitan” egiten zuten horien batura (% 59 izatetik % 34 izatera igaroaz). Baina, aurretik ikusi dugun bezala, hauetan emandako ohitura berri horiek galdu egin dira denboraren poderioz.


Joera bera ikusi da emaitza orokorretan ere (12.grafikoa). Ondorioz, esan daiteke *ahobiziei* ere gehiago kostatzen zaien egoera dela euskarari eustea solaskideak euskaraz zailtasunez ulertzen duenean.



27. grafikoa

*Ahobizien* kasuan ere, euskaraz erraztasunez mintzatzen den solaskidea topatzeak asko errazten du hizkuntzaren erabilera (27.grafikoa). Hain zuzen ere, halako kasuetan euskaraz “beti” eta “askotan” egiten duten *ahobiziak* % 98tik gora dira hiru neurketetan. Euskaraldiaren eragina apenas antzeman daiteke kasu honetan, lehendik ere egonkortuak dauden euskarazko hizkuntza harremanak nagusi direlako kasu honetan.

**Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekiko erabilera**



28. grafikoa<sup>10</sup>

Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekiko “beti” edo “askotan” euskaraz aritzen direnak nagusi dira hiru neurketetan, emaitza orokorretan ikusi den bezala aurretik (14.grafikoa).


Lehen galdetegian % 78 dira “beti” edo “askotan” euskaraz dihardutenak eta kopuru hori bi puntu jaisten da Euskaraldia bukatu ondoren burututako galdetegian. Lehenengo neurketatik bigarrenengo neurketara izandako joera berdina errepikatzen da baina modu nabarmenagoan. Kasu honetan, 20 puntuko jaitsiera izan du bi kategorien baturak (% 76 izatetik % 56 izatera). hirugarren galdetegiarekin. Hala, aldi berean, bereziki euskaraz “batzuetan” egiten duten horiek kategoria indartu da denboran zehar, hasierako galdetegitik hirugarrenera 17 puntuko igoera bat izanez.

Joera orokor hau eta kategoriek izandako bilakaerak datu orokorretan ikusitakoaren berdinak izan dira.

<sup>10</sup> Grafikoaren irakurketa errazte aldera, %3a baino portzentaje txikiagoa duten kategoriak ez dira grafikoa adierazi.

***h. Erabilera ekimenaren betekizun mailaren arabera***


Euskaralditik *ahobiziei* egin zaizkien eskakizunak (lehen hitza euskaraz egitea, euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea eta txapa egunero jantzita eramatea) zein mailatan bete diren adierazten da 29. grafikoan. Ehunekotan agertzen da betetze maila desberdina izan duten *ahobizien* proportzioa.



29. grafikoa

Ikus daitekeenez *ahobizien* artean gehiengo batek behar bezala bete ditu ekimenetik eskatu zaizkion konpromisoak: hiru laurdenek (% 75) “betetze maila oso altua” izan dute eta % 17k “betetze maila altua”

Euskaralditik *ahobiziei* egin zitzaizkien eskakizunak zein mailatan bete diren kontuan hartuz, betetze maila desberdina izan duten *ahobizien* hizkuntza erabilera nolakoa izan den adierazten da 30. grafikoan. Erabilera datua, zehazki, “ulertzen dutenekin euskaraz egin” aldagaiari emandako erantzunetatik atera da. Datuak 0-100 eskala batean ematen dira, non 0 “inori euskaraz ez egitea” den, eta 100 “guztiek euskaraz egitea”.



30. grafikoa<sup>11</sup>

30. grafikoa ikus daiteke ekimeneko betekizunekin izandako konpromiso maila zuzenki lotua dagoela ulertzen dutenekin euskaraz egiteko joerari. Hala, ekimeneko betekizunak “oso maila altuan” bete dituzten *ahobiziak* dira ulertzen dutenekin euskara gehien erabiltzen dutenak (81-98 puntu artean daudenak). Eta aldiz, ekimeneko konpromisoak “maila altuan” eta “maila ertainean” bete dituztenak dute euskaraz ulertzen dutenekin euskara gutxiago erabiltzeko ohitura (62-83 eta 20-53 puntu artean).

Epe luzera izandako bilakaerari erreparatuz, ikus daiteke joera antzekoa izan dutela betetze maila guztiek, nahiz eta hauen egonkortzea desberdina izan kasu bakoitzean: Euskaraldian kategoria guztietan hazi da euskara erabiltzeko ohitura, eta berriro ere atzera jaitsi hiru hil pasatakoan. Hala ere, betetze maila “oso altua” dutenek eta “ertaina” dutenek izan duten irabazia egonkortzea lortu dute (betetze maila “ertainaren” kasuan hasierako egoera bikoiztuz) eta “betetze maila altua” duten horiek bigarren galdetegitik hirugarrenengorako jaitsierarekin hasierako puntura itzuli ziren.

<sup>11</sup> 30. grafikoa ez dira eskakizunen betetze-maila guztiak adierazten. Izan ere, 29. grafikoa ikus daitekeen moduan, “oso baxua” eta “baxua” kategoriek ez dute laginik. Hartara, kasu honetan betetze-maila “oso altua”, “altua” eta “ertaina” dutenen emaitzak jasotzen dira.



### 3.3. Belarriprestak

Jarraian agertzen diren datuek *belarripresten* hizkuntza joerak eta horien bilakaerak adierazten dituzte. 2. *Ohar metodologikoak* atalean azaldu den moduan, *belarriprest* izan diren pertsona gutxiak bete dituzte ikerketako hiru galdetegiak. Horregatik, datuak interpretatzean kontuan izan behar da laginean *belarripresten* kopuru txikia dagoela.

#### 3.3.1. Generoaren eta adinaren arabera

	<i>Emakumezkoa</i>	<i>Ez-binarioa</i>	<i>Gizonezkoa</i>
16-24	1	0	1
25-34	2	0	0
35-49	14	0	5
50-64	10	0	4
65etik gorakoak	1	0	1
<i>Guztira</i>	28	0	11

6. taula

Orain arte ikusi den bezala, generoari dagokionez, *belarripresten* kasuan ere emakumeak dira gehiengo nabarmen. Zehazki, *belarripresten* lagina osatu duten % 71,8 dira emakumeak (28 lagun) eta % 28,2 (11 lagun) gizonezkoak. Bestalde, ez da egon genero ez-binarioekin beraien burua identifikatzen duenik.

Adinari erreparatuz, datu orokorretan eta *ahobizietan* ikusi den bezala, *belarripresten* kasuan ere gehiengo dira 35-49 urteko adin tartean dauden pertsonak. Zehazki, emakumeen kasuan % 50 (14 lagun) dira adin tarte honetakoak eta gizonezkoen artean % 45 gizonezkoetan (5 lagun). Adin tarte honen atzetik datoz 50-64, datu orokorretan eta *ahobizietan* ikusi bezala: emakumezkoen % 35 dira (10 lagun) eta gizonezkoen % 36 (4 lagun). Gainontzeko kategorietan oso *belarriprest* gutxi izan dira (bat edo bi lagun gehienez). Beraz, azpimarratzekoa da gazte eta heldurik ez dela izan ia *belarripresten* artean.


### 3.3.2. Gaitasunaren arabera

		<i>Mintzamena</i>					
		Ez naiz gai	Hitz batzuk	Esaldi errazak	Elkarrizketa errazak	Ongi	Guztira
<i>Ulermena</i>	Ez naiz gai	0	0	0	0	0	0
	Hitz batzuk	0	0	0	0	0	0
	Esaldi errazak	0	0	2	0	0	2
	Elkarrizketa errazak	0	1	4	9	0	14
	Ongi	0	0	0	8	15	23
	Guztira	0	1	6	17	15	39

7. taula

Zornotzako *belarriprestek* duten hizkuntza gaitasunari dagokionez, *belarripresten* artean *ahobizietan* baino aniztasun gehiago aurki daiteke. Ulermenari dagokionez, % 36 (14 lagun) "elkarrizketa errazak" ulertzen moldatzen da ondoen euskaraz eta % 59k (23 lagun) berriz, "ongi" ulertzen duela dio. Mintzamenari dagokionez, aldiz, gehiengoak "elkarrizketa errazetan" hitz egiteko du gaitasun gehien (% 43, 17 lagunek), % 38 "ongi" hitz egiteko gai da (3 pertsona) eta % 15 berriz, "esaldi errazak" esateko da gai.

### 3.3.3. Motibazioaren bilakaera




31. grafikoa

*Belarriprestek* euskaraz hitz egiteari eman dioten garrantzia maila adierazten da 31. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

Datuen argitan ikus daiteke *belarripresten* artean ere euskara erabiltzeari garrantzia “oso handia” eta “handia” ematen dietenak gehiengoa direla hiru neurketetan. Hala ere, *belarripresten* kasuan proportzio txikiagoan. Nolanahi ere, denborak aurrera egin ahala interes hori ahultzen doa pixkanaka. Hain zuzen ere, garrantzia “oso handia” eta “handia” ematen dietenak elkarrekin kontuan hartuta, lehen galdetegian % 83 osatzen dute, eta hirugarrenean 6 puntu gutxiago dira (% 77).

### 3.3.4. Hizkuntza jokaeraren bilakaera

#### a. Ulertzen dutenekin euskaraz



32. grafikoa


*Belarriprestek* euskaraz ulertzen duten pertsonen artean zenbati egiten dioten euskaraz ikus daiteke 32. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duen *belarripresten* proportzioa.

*Ahobiziek*in alderatuta, *belarripresten* igoera maila nabarmen handiagoa izan da. *Belarripresten* kasuan, % 23 ziren “gehiengoari” eta “guztiei” euskaraz egiten zietenak Euskaraldia hasi aurretik. Euskaraldiaren ondotik, honen eragina nabarmen ikusi zen, bigarren galdetegian bi kategoria hauen batura *belarripresten* bi heren iritsi baita (% 67, 44 puntu-ko igoera). Ondoren, honen jaitsiera 36 puntukoa izan da, baina hala ere, guztiz deigarria den 13 puntuko egonkortzea azpimarratzea beharrezkoa da (% 23tik % 36ra).

Gainera, beste kategoriek izandako aldaketak ere aipatzea beharrezkoa da. Ikusi daiteke, Euskaraldia egin baino lehen *belarripresten* erdia (% 51) zirela “inoiz ez” edo “gutxiengoari” euskaraz egiten zienak. Hauen joerak ere euskararen aldeko erabileran bilakatu direla ikus daiteke, hirugarren galdetegiko emaitzekin “inori” edo “gutxiengoari” euskaraz egiten ez diotenak % 26 izatera pasa baitira.

Ikus daitekeenez, beraz, Euskaraldiak bereziki eragin positiboa izan du *belarripresten* artean, bai 11 egunen ondotik eta baita hartutako hizkuntza ohitura berriak finkatzeko orduan ere.

**b. Inguruko hizkuntza erabilera**




33. grafikoa

33. grafikoa *belarriprestek* haien egunerokoan entzuten duten euskara kopurua islatzen da. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

*Belarriprestek ahobiziek* baino euskara gutxiago antzeman dute haien inguruan. Batzuen eta besteen emaitzak alderatzen badira (17. grafikoa), ikus daiteke *Euskaraldia* hasi aurretik *belarripresten* artean *ahobizien* artean baina gutxiago direla “dena” eta “erdia baino gehiago” euskaraz entzuten dutenak (*belarripresten* artean % 18, bi kategoriak kontuan hartuz eta *ahobizietan* % 54). *Euskaraldia* eta gero, ordea, *belarriprestan* zifra hori izugarri hazten da, 62 puntutan gora egin eta % 80koa izatera igaroaz eta *ahobizien* artean sumatu zena gaindituz.

Azken galdetegian beheranzko joera antzeman daiteke; 11 puntutan egiten baitu behera bi kategorien arteko baturak (% 23 izatera iritsiz). Hala, sortutako hizkuntza ohitura berriak ez dira egonkortzea lortu.

**c. Norberaren hizkuntza erabilera**



34. grafikoa


*Belarriprestek* haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopurua. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

*Belarriprestek* haien egunerokoan erabiltzen duten euskara kopuruan izandako aldaketak *ahobizietan* ikusitakoak baino nabarmenagoak izan dira. Zehazki, Euskaraldia hasi aurretik % 15ak “hitz egiten zuenaren erdia baino gehiago” edo “dena” egiten zuen euskaraz. Euskaraldiaren haritik, “dena” eta “erdia baino gehiago” zirenak % 36 izatera igaro ziren eta hauek hiru hilabeteren buruan hamar puntu beherantz egin badute ere, hasierako egoeratik 11 puntuko egonkortze positibo bat lortu da *belarripresten* artean. Gainera, aipatzekoa da *ahobizien* kasuan eta datu orokorretan igoera zati baten egonkortzea ikusi dela, baina *belarriprestan* hau handiagoa izan da, nahiz eta kategoria hauetan identifikatzen diren pertsona kopurua txikiagoa izan.

Bestetik, beste muturreko kategoriak aztertuz gero, ikus daiteke euskaraz “batere ez” edo “erdia baino gutxiago” egiten dutenak jaitsiera handia izan dutela Euskaraldiaren ondorioz. Hauek % 60 izatetik, % 49 egonkor bat izatera igaro baitira.

**d. Erabilera ezagunekin**

Datozen grafikoetan, *belarripresten* gizarte eremu desberdinetako hizkuntza-erabilera aztertzen da. Grafikoetan jaso da haien ezagunekin erabili duten euskara kopurua (ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa).




35. grafikoa

*Belarripresten* artean, orain arte ikusitako joera errepikatu da; familian eragin positiboa izan baitu Euskaraldiak. Hiru galdetegietan gehiago dira euskaraz “erdia baino gutxiago” eta “inoiz ez” eta “erdia baino gutxiago egiten dutenak. Hala ere, hauek nabarmen jaisten dira Euskaraldiaren ondorioz: lehen galdetegian % 74 izatetik, bigarren galdetegian % 52 izatera igaro ziren 22 puntuko jaitsierarekin. Hauek hiru hilabeteren buruan berriz zerbait igo dira, baina hala ere 12 puntuko egonkortzea lortu da, guztiz adierazgarria.

Bestalde, etxekoen artean "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak % 18 izatetik % 33 izatera igarotzen dira ekimenean zehar, eta hiru hil igarotakoan zerbait galtzen badute ere, hauen artean 10 puntuko mantentze positibo bat lortu da.

Beraz, *belarripresten* kasuan ere familiaren zirkulu sozialetan hizkuntza praktika berriak egonkortu direla ikus daiteke, bai beraien egunerokoan euskara asko erabiltzen dutenen artean eta baita gutxiago erabiltzen dutenen artean ere.




36. grafikoa

*Belarripresten* kasuan Euskaraldiak iraun zuen epealdian lagunartean aldaketa handiak eman zirela antzeman daiteke goiko grafikoak ematen duen informazioarekin. Gainera, Euskaraldian zehar sortutako hizkuntza ohitura berri horietatik, guztiak izaan ez badira ere, batzuk egonkortu direla azpimarratu behar da.

Lagunartean euskaraz “beti” edo “erditan baino gehiago” jarduten direnen kasuan 35 puntuko igoera indartsu bat izan zuten Euskaraldiaren ondotik, eta hiru hilabete igarotzearekin batera, honek 23 puntuko jaitsiera izan dute, baina hasierako egoerarekiko 8 puntuko mantentze bat emanaz.

Hiru galdetegietan lagunartean *belarripresten* gehiengoak dio euskaraz “batere ez” edo hitz egiten dutenaren “erdia baino gutxiago” egiten dutela. Hasiera batean hauek *belarripresten* % 84 ziren, bigarren galdetegian ikusi zen euskararen erabilera izugarri hasi zela bi kategoria hauen artean (% 34 izatera jaitsiz), eta hirugarren galdetegian % 67 izatera igo zen hauen portzentaia, baina hasierako egoerarekiko 17 puntuko egonkortze bat eman dela ikusi da euskaraz sortu zituzten hizkuntza ohitura berrietan. Hau ulertu daiteke hein handi batean, euskaraz lagunartean “erdia” egiten dutenak 11 puntuko igoera bat egonkortu dutela denboraren poderioz (1.galdetegian % 10 ziren eta 3.galdetegian % 21).






37. grafikoa

*Belarripresten* kasuan *ahobizienean* baino eragin handiagoa izan du Euskaraldiak: bai ekimenaren egunetan zehar eta baina honek egonkortzea lortu dituen hizkuntza ohitura berrietan ere.

Euskaraz “erdia baino gehiago” egiten duten horiek 1. galdetegian % 28 izatetik 2. galdetegian % 43 izatera igarotzen dira; nahiz eta hauek denboraren poderioz hasierak egoerara itzuli. Bestalde, aipatzeko da baita lagunartean ikusi den antzera, euskara “batere ez” edo “erdia baino gutxiago” erabiltzen zuten horiek aktibatze balio izan duela lantokietan Euskaraldiak. Denboran zehar gainera, ikus daiteke hauek aurretik gehiengo baziren ere (% 61) Euskaraldiarekin herena izatera igarotzen direla (% 36) eta 2018ko otsailean % 43an mantentzea lortu dute.

Beraz, euskara lantokiko harremanetan gehienetan erabiltzen duten horien kasuan Euskaraldiak ekarritako hizkuntza ohiturak egonkortu ez badira ere, euskara oso gutxi erabiltzen zuten horien kasuan modu nabarmenean positiboki hizkuntza ohitura berriak finkatzeko balio izan duela ikusi da.




38. grafikoa

*Ahobizi* eta datu orokorretan ikusi bezala, Euskaraldian zehar eta ondoren ikasgelan *belarriprestek* izandako euskararen erabilerak beheranzkoa izan du orokorrean.

Lehen eta bigarren galdetegian euskaraz "dena" eta "gehiena" egiten dutenen kopuruak ez dira ia aldatu (hiru puntu-ko jaitsiera izan da) baina hiru hilabeteren buruan, hau 7 puntutan jaitsi da (lehen galdetegian % 31, bigarrenengan % 29 eta hirugarrenengan % 23). Hala ere, *belarripresten* kasuan aldaketa guztiak ez dira negatiboak izan beste kasutan ikusi den bezala. Zehazki, euskara "batere ez" edo "erdia baino gutxiago" erabiltzen duten horiek Euskaraldiaren eraginez 18 puntuko jaitsiera izan dute (% 34tik % 16ra). Ondoren, hiru hilabete igarota, bederatzir puntu hazi dira, baina hasierarekiko 9 puntuko egonkortze bat eman da hizkuntza ohitura berri horietan (% 25).

Laburbilduz esan daiteke, *belarriprestek* ere gune sozial informaletan izan dutela aurrerapauso nabaria, Euskaraldiak familia giroan eta lagunartean ekarri baitu epe luzerako egonkortasun handiena, azken hori izanik euskararen aldeko aldaketa esparru emankorra.

**e. Erabilera ezezagunekin**




39. grafikoa

*Belarriprestek* haien egunerokoan topatzen dituzten ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko jokoaren maiztasuna erakusten da 39. grafikoa. Ehunekotan agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa.

Aurretik ikusi da *ahobiziek* aldaketa positibo nahiko esanguratsuak izan dituztela ezezagunekin euskaraz egiteko zuten ohitura horietan, baina hauekin alderatuz, *belarripresten* kasuan bilakaera aberasgarriagoa izan dute *belarriprestek* ezezagunekin euskaraz hitz egiteko garaian. Lehen galdetegian % 24 dira ezezagunekin euskaraz "beti" edo "gehienetan" egiten duten *belarriprestek*. 11 egunen ondotik, 40 puntu hazten da kopuru hori eta % 64 izatera iristen da. Hiru hilabete igarotakoan 8 puntu egiten dute behera bi kategoria horiek (2. galdetegian % 64 izatetik 3. galdetegian % 46 izatera igaroz) baina hala eta guztiz ere 22 puntuko irabazia eskuratzen dute.

Horrez gain, aipatzekoa da baita ezezagunei euskaraz "inoiz ez" edo "gutxitan" egiten dieten horiek % 47 izatetik % 33 izatera igaro direla 2018ko azarotik 2019ko otsailera Euskaraldiaren ondorioz.

*f. Erabilera norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera*



40. grafikoa<sup>12</sup>


40. grafikoa *belarriprestek* duten mintzatzeko gaitasunaren arabera euskara erabiltzeko duten joera nolakoa den agertzen da. Kasu honetan, 10. grafikoa bezala, “ulertzen dutenekin euskaraz egin” aldagaia kontuan hartuz osatu den indizea baliatu da erabilera adierazteko. Emaitzak 0-100 eskalara daude ekarriak non 100 “euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea” den eta 0 “euskaraz ulertzen dutenen artean inori euskaraz ez egitea” den.

Mintzatzeko gaitasunari erreparatuz ikus daiteke *belarripresten* artean ere gaitasun handiena dutenek dutela euskara erabiltzeko joera altuena (46-93 puntu artekoa). Aldiz, "elkarrizketa errazak" esateko gai direnen erabilera apalagoa da (12-59 puntu artekoa). Maila desberdinetan izanik ere, bi kategorien bilakaera antzekoa da: Euskaraldiaren ostean erabilera hazi egiten da bi kategorien kasuetan eta 3. galdetegiarekin, aldiz, beherakada dator. Nolanahi ere 1. galdetegiarekin alderatuz irabaziak ateratzen dituzte biek 3 hil pasatakoan.

<sup>12</sup> 40. grafikoa ez dira mintzatzeko gaitasun guztiak adierazten. Izan ere, 7. taulan ikus daitekeen moduan, kategoria batzuk oso lagin txikia dute (“ez naiz gai”, “hitz batzuk” eta “ongi”) eta horiek grafikoko datuak desitxuratzea eta interpretazio akastunak egitea dakarte. Hartara, kasu honetan “elkarrizketa errazak” edukitzeko gai direnen eta “esaldi errazak” esan ditzaketenen emaitzak jasotzen dira.

**g. Erabilera solaskidearen gaitasunaren arabera**

Jarraian agertzen diren lau grafikoetan hizkuntza gaitasun eta jokaera desberdinen aurrean *belarriprestek* zein jarrera izan duten zehazten da. Ehunekoetan azalduta dago kategoria bakoitza hautatu duen *belarripresten* proportzioa.




41. grafikoa

*Ahobiziek*in alderatuta nahiko urria da euskaraz erraztasunez mintzatzen direnekin euskaraz “beti” edo “askotan” egiten duten *belarripresten* portzentajea, baina hauek izandako bilakaerak oso antzekoak dira bi kasuetan. Izan ere, Euskaraldia baino lehen *belarripresten* gehiengoak euskara “gutxitan” edo “inoiz ez” erabiltzen zuen (bi kategoriak elkarrekin kontuan hartuz % 64). Euskaraldian, ordea, euskara erabiltzeko joera indartu egiten da hauen kasuan eta herena izatera igarotzen dira (31 puntuko jaitziera bitarteko). Euskara “beti” edo “askotan” erabiltzen duten horien artean ere aldaketa nabarmena ikus daiteke. Zehazki hauek % 15 izatetik % 31 izatera igaro baitziren.

Hiru hilabete igarotakoan, ikusitako bi muturretan euskararen erabilera jaitziera izan dute, baina modu desberdinean. Euskaraz “beti” edo “askotan” jarduten duten horien hizkuntza ohitura berriak ez dira egonkortu da aurreko egoerara itzuli dira, baina aldiz, euskaraz “inoiz ez” edo “gutxitan” jarduten duten horiek izandako igoera ia guztia mantentzea lortu dute (hasierako puntutik 25 puntuko jaitziera positibo bat mantenduz).

**Euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekiko erabilera**




42. grafikoa

Ahobiziei bezala, *belarriprestei* ere kosta egiten zaie euskaraz zailtasunez ulertzen dutenekin euskara erabiltzea.

Euskaraldia baino lehen, ez zegoen kasu horietan euskara “beti” edo “askotan” erabiltzen zuen *belarriprestek*. 11 egunak igarotzean, berriz, % 13k egiten zuen “beti” edo “askotan” euskaraz, eta “batzuetan” egiten zuten *belarripresten* kopuruak 10 puntuko igoera izan zuen (lehen galdetegiko % 18tik bigarreneko % 28ra). Katgoria hauetan ordea jai-tsierra nabarmena ikusi da hiru denboraren poderioz: “batzuetan” egiten duten horiena 5 puntu jaitsez (% 23ean gertatuz) eta “askotan” egiten dutenena % 3an (“gutxia” egiten dutenen katgoria ezabatzen da).

Aurrekoaren harira beraz, beharrezkoa da hiru hilabeteren bueltan Euskaraldiaren eragina ikustea 3.galdetegian dauden katgoriekin, lehenengo galdeketarekin alderatzen den bitartean. Hau da; nahiz eta hirugarren galdetegian bigarrenegotik eman den beherantz ikusi den, euskara “inoiz” erabiltzen ez duten horiek 18 puntu jaitsi dira lehenengo neurketatik hirugarrengora, “batzuetan” erabiltzen duten katgoria 10 punturekin igoaz. Hau horrela, Euskaraldiak euskara batere ez erabiltzetik gutxitan edo batzuetan erabiltzeko ohitura egonkortu duela azpimarratu behar da euskara zailtasunez ulertzen dutenekiko erabileran.

**Euskaraz erraztasunez mintzatzen direnekiko erabilera**




43. grafikoa

Euskaraz erraztasunez mintzatzen den solaskidea izateak bultzatzen du gehien *belarripresten* euskararen erabilera. Euskaraz “beti” edo “askotan” egiten duten *belarripresta*k 18 puntu hazi dira Euskaraldiari esker (% 69tik % 87ra) eta igoera horrek epe luzera mantentzea lortu du guztiz (bi puntuko jaitsiera eman da bakarrik, % 85ean geratuz).

Horrez gain, aipatzekoa da euskaraz “gutxitan” eta “inoiz ez” hitz egiten duten horien artean 13 puntuko jaitsiera bat ematen dela Euskaraldian zehar eta 6 puntukoa hortik hiru hilabetera begira.

Beraz, solaskidea erraztasunez jarduten denean gehiengoa baziren ere gehienetan euskaraz egiten zutenak, Euskaraldia gai izan da euskararen aldeko hizkuntza ohitura berriak sortzeko eta gainera, hauetako asko egonkortuta mantentzeko.

**Euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekiko erabilera**



44. grafikoa


Oro har, *belarriprestek* Euskaraldian zehar euskara gehiago erabili dute euskaraz zailtasunez mintzatzen direnekin, baina aldaketak ez dira horren adierazgarriak izan beste kasuetan ikusi den bezala. Euskaraz “beti” edo “askotan” jarduten zuten horien artean ez da aldaketarik eman Euskaraldiaren ildotik, baina bai euskaraz “gutxitan” edo “inoiz ez” egiten zuten horien kasuan. Gainera, azken hauen kasuan, beheranzko joera hori zati batena mantendu da. Bi kategorია hauek hasieran *belarripresten* % 31 ziren eta Euskaraldiarekin % 18 izatera igaro ziren (hau guztiz egonkortuz hiru hilabetetan).

Hala, *belarripresten* euskarazko harreman berrienetan, solaskidea euskaraz mintzatzeko zailtasunekin topatzen den horietan, euskararen aldeko ohiturak erroto direla ikus daiteke, euskaraz gutxitan hitz egiten bada ere.



### ***h. Erabilera ekimenaren betekizun mailaren arabera***


Euskaralditik belarriprestei egin zaizkien eskakizunak (euskaraz dakitenei haiekin euskara erabil dezaten eskatzea eta txapa egunero jantzita eramatea) zein mailatan bete diren adierazten da 45. grafikoan. Ehunekotan agertzen da betetze maila desberdina izan duten belarripresten proportzioa.



45. grafikoa

Ahobizien artean bezala, *belarriprestetan* betetze maila “oso altua” izan da nagusi (% 41), baina kasu honetan modu proportzionalago batean dago banatuta lagina gainontzeko kategoriei dagokienean ere. Hala, kopuru antzekoarekin heldu dira “betetze maila altua” izan dutenak (% 36), eta segidan, tarte handiagoarekin “betetze maila ertaina” izan dutenak (% 15). Gainontzeko kategoriek oso pisu gutxi izan dute.

Euskaralditik *ahobiziei* egin zitzaizkien eskakizunak zein mailatan bete diren kontuan hartuz, betetze maila desberdina izan duten *ahobizien* hizkuntza erabilera nolakoa izan den adierazten da datorren grafikoan. Erabilera datua, zehazki, “ulertzen dutenekin euskaraz egin” aldagaiari emandako erantzunetatik atera da. Datuak 0-100 eskala batean ematen dira, non 0 “inori euskaraz ez egitea” den, eta 100 “guztiei euskaraz egitea”.



46. grafikoa<sup>13</sup>

Ahobiziek gertatu bezala, *belarripresten* artean ere agerikoa da ekimeneko betekizunekin izandako konpromiso maila lotua dagoela ulertzen dutenekin euskaraz egiteko joerari. Betetze maila “oso altua” izan dutenak dira euskara modu nabarmenean erabili dutenak (44-100 puntu artean). Hauen erabilera denborarekin jaitsi egin bada ere, hasieratik 18 puntuko hazkundera izan dute erabileran. Joera berdina izan da, maila baxuagan bada ere “betetze maila altua” izan dutenena. Hauek 57 puntuko igoera izan dute Euskaraldian zehar (7-64). Hala ere, hiru hilabete igaro ostean irabazitakoa galdu egiten da, 7 puntuko igoera bat mantenduz hasierarekiko.


Gutxiago erabili dute, baina aldi berean, oso datu adierazgarriak eskaintzen dizkigu “betetze maila ertaina” izan dutenen jokoerak. Hauek ekimenean zehar ez dute hazkunderik izan, baina hiru hilabeteren buruan euskara gehiago erabili dute, ia bikoiztuz beraien erabilera (17-33).

Modu honetan, euskaraz dakitenekin euskara erabiltzeko joerak egonkortu direla ikus daiteke hiru kasuetan (bakoi-tzak bere neurrian), hauek hasierako zifrekin alderatuta, azken emaitzek erabileran hazkundera egon dela erakusten baitute bi kasuetan.

<sup>13</sup> 46. grafikoa ez dira eskakizunen betetze-maila guztiak adierazten. Izan ere, 45. grafikoa ikus daitekeen moduan, “oso baxua” eta “baxua” kategoriek oso lagin txikia dute, eta hauek grafikoko datuak desitxuratzea eta interpretazio akastunak egitea ekarriko luke. Hartara, kasu honetan betetze-maila “oso altua”, “altua” eta “ertaina” dutenen emaitzak jasotzen dira.

### 3.4. Ahobizi eta belarripresten arteko harremanak


#### 3.4.1. Ahobizien hizkuntza jokaera ahobiziekin (mintzamena)



47. grafikoa

*Ahobiziek ahobizi* txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da 47.grafikoan. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *ahobizien* proportzioa. *Ahobizien* artean euskararen erabilera izan da nagusi Euskaraldian zehar. 47.grafikoak argi erakusten du guztiek elkarri euskaraz egiten diela “beti” edo “askotan”, bien artean osatzen baitute % 100.


#### 3.4.2. Ahobizien hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena)



48. grafikoa

*Ahobiziek belarriprest* txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da 48.grafikoan. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten ahobizien proportzioa. Kasu honetan ere *ahobizien* joera nagusia euskara “beti” erabiltzea dela ikus daiteke (% 72), nahiz eta solaskidea *belarripresta* den kasuetan *ahobizia* denean baino gutxiagok duten joera hori. Nolanahi ere, *belarriprestei* euskaraz “beti” edo “askotan” egiten dioten *ahobiziak* % 98 izan dira.


### 3.4.3. Belarripresten hizkuntza jokaera ahobiziek (mintzamena)



49. grafikoa

*Belarriprestek ahobizi txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa. *Ahobizien* datuekin alderatuz, *belarripresten* artean txikiago dira *ahobiziei* euskaraz “beti” eta “askotan” egiten dietenak (% 77).*

### 3.4.4. Belarripresten hizkuntza jokaera belarriprestekin (mintzamena)




50. grafikoa

*Belarriprestek belarriprest txapa zeramatenei euskaraz zenbatetan hitz egin dieten adierazten da 50.grafikoan. Ehunekotan (%) agertzen da erantzun bakoitza hautatu duten *belarripresten* proportzioa. *Belarriprestek* haien artean euskaraz gutxiago erabili dute *ahobiziek* baino. Izan ere, solaskidea *belarripresta* denean, % 64 dira “beti” edota “askotan” euskaraz egiten dutenak (solaskidea *ahobizia* denean, 49.grafikoan, bi kategoriak elkarrekin hartuta, % 77 dira).*



### Aldea 2



52.grafikoa

52. grafikoak Euskaraldiaren hasieran (1. galdetegian) eta handik hiru hilabetera (3. galdetegian) herritarrek zuten hizkuntza-erabilerak alderatzen ditu. Horretarako, “ulertzen dutenekin euskaraz” aldagaia baliatu da, eta 51. grafikoa bezala irakurri behar da.

Kasu honetan, 3. gune soziolinguistikoko 83 herrietan, batz bestez, 4,8 puntuko aldea egon da Euskaraldia baino lehen eta handik hiru hilabetera ulertzen dutenekin euskaraz “guztietan” edo “gehiengoan” egiten dieten herritar kopuruetan. Hala, kasu honetan ere, Zornotza batz besteko horretatik gora kokatzen da eta aurrekoan baino gertuago batz bestekotik gainera (7,98).

## 4. Datu nagusien irakurketa (laburrean)

Atal honetan, Euskaraldiak Zornotzan izan duen eraginari buruzko datu esanguratsuenak laburbiltzen dira:

1. Emakumezkoak nagusi izan dira, bai parte hartze orokorrean (% 78) baita *ahobizi* (% 80) zein *belarriprestetan* (% 71,8) ere.
2. Adinari dagokionez 35-49 urte artekoak gailendu dira datu orokorretan (% 47), *ahobizietan* (% 46) eta baita *belarriprestetan* (% 48) ere.
3. Euskaraldiak euskara erabiltzeko aukerak optimizatzea ekarri du, eta modu nabarmenean eman da igoera hori: euskaraz dakiten "guztiei" edo "gehienei" euskaraz egiten dieten pertsonak dezente gehiago izan baitira ekimenean zehar ekimena hasi aurretik baino (% 64 izatetik, Euskaraldian % 87 izatera igaro dira). Hiru hilabete pasatu ondoren, gainera, guztiz ez bada ere, zenbait ohitura berri egonkortzea lortu dela ikusi da (%12 gehiago 1.galdetegian baino). Joera bera ikusi da *ahobizietan* ere, nahiz eta euskararen erabilera oraindik eta handiagoa izan. *Belarriprestetan* ere halako bilakaera bat izan da, baina Euskaraldia bukatu ondorengo igoera oraindik eta nabarmenagoa izan da (44 puntukoa).
4. Norberaren hizkuntza erabilerak gora egin du Euskaraldian. Hitz egiten duten "dena" eta "erdia baino gehiago" euskaraz egiten dutenak gehiago izan dira ekimenean zehar (lehen galdetegian % 66 izatetik % 76 izatera igaroaz bigarrenean). Epe luzera ohitura berri horiek ez direla finkatu ikusi da, eta bilakaera hau berdina izan da *ahobizi* eta *belarriprestetan*.
5. Euskaraldiak 11 eguneko epean lagunartean izan du eragin handien. Hiru hil pasatakoan ere bertan lortu da ohitura berriak gehien egonkortzea, nahiz eta familia ere egonkortzea gertatu den horren nabarmena izan ez badira ere zifrak. Joera bera ikusi da *ahobizietan* eta *belarriprestetan*.
6. Ekimeneko 11 egunetan, norberak hitz egiteko zuen gaitasunaren arabera ere Euskaraldiak modu desberdin batean eragin du. Ongi hitz egiten duten horien artean euskararen erabilera igo egin da Euskaraldiarekin eta nahiz eta igoera hori ez den egonkortzea lortu guztiz, 7 puntuko aurrerapena eman dela ikusi da. Hala ere, aipatzekoa da igoera nabarmenagoa izan dela "elkarrizketa errazak" izateko gai diren horien artean (18 puntu).
7. Solaskidearen gaitasuna kontuan hartuz, hizkuntza ohitura aldaketarik handienak "euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin" eman dira. Joera hori *ahobizi* zein *belarripresten* artean ere ikus daiteke.
8. Euskaraldian bai *ahobiziek* zein *belarriprestek* euskara gehiago erabili dutela erakutsi dute datuek. Kontuan izan behar da, gainera, *belarriprest* rola halako betebeharrak espliziturik ez zuela, eta hala ere espontaneoki euskara gehiago erabiltzeko joera erakutsi dutela euskaraz "beti" eta "askotan" aritu direnak nabarmenki hazi baitira Euskaraldiaren eraginez eta baita orduarte euskaraz "inoiz ez" edo "gutxitan" egiten duten horien artean ere.